

Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak deia egin du **ikerketari proiektuetarako laguntzak emateko, Oinarrizko Ikerketa ez Bideratuko Proiektuen azpiprogramaren barruan**, Ikerketa Zientifiko, Garapen eta Teknologiaren Berrikuntzarako Estatuko IV. Planaren esparruan (2008-2011). ([2009-12-31eko BOE](#))
http://web.micinn.es/contenido.asp?menu1=1&menu2=1&dir=03_Plan_IDI/00-LIAs/01-ProyectosIDI/00-ProyectosInvFund/00@NoOrientada

Deialdiaren helburua:

Deialdiak oinarrizko Ikerketa ez Bideratuko Proiektuen Azpiprogramaren barruan garatzen diren ikerketa-proiektu desberdinetarako diru-laguntzak emateko prozedura arautzea du helburu, publizitate-, objetibotasun- eta norgehiagoka-irizpideei jarraiki. Kalitatezko ikerketako jarduerak bultzatu nahi dira, eta hori lortzeko ikerketako jarduerak nazioarteko esparrura zabaldu eta horien emaitzak zientziaren eta teknologiaren alorrean oso esanguratsuak diren foroetan argitaratzeaz gain, ikerketa gizarte-, ekonomia- eta teknologia-arazoei aurre egiteko lagungarria izan dadila sustatu nahi da. Beste helburuetako bat ikerketa-taldeek zatiketarako duten joera apurtzea da, modu honetan ikerketa-taldeok Espainiako ikerketak Europako Ikerketa Eremuaren esparruan dituen erronkei aurre egiteko beharrezkoak diren tamaina eta masa kritikoa lor ditzaten. Horretarako, proiektu bakoitzean ordu-kopuru handia emango duten ikertzaileen parte-hartzea bultzatu nahi da. Horrez gain, diziplina anitzeko eta mugako ikerketa bultzatu nahi du, hainbat zientzia-esparrutako ezagutza gehigarriak XXI. mendeko Espainia eta Europako gizarteek dituzten arazoak konpontzera bideratzeko gai izango dena.

Proiektu-motak:

- A: ikertzaile gazteentzako proiektuak;
 - B: deialdi honen onuradun izan ohi diren lan-taldeentzako proiektuak.
- Aurreko modalitateei dagozkien proiektuak banakako proiektu edo koordinatutako proiektu bezala aurkeztu ahalko dira.

Onuradunak:

I+G+B-rako zentro publikoak, irabazi-asmorik gabeko I+D+I-rako zentro pribatuak eta proiektuko ikertzaile nagusia plantillan duten zientzia, teknologia, ikerketa eta berrikuntzari lotutako irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

Eskariak aurkezteko epeak:

Ikertzaileek eskaerak aurkezteko ondoren elkarren segidako hiru epe izango dituzte, aukeratutako ebaluazio-arloaren arabera.

2010eko urtarrilaren 4tik 2010eko otsailaren 1era. Epe honen barruan aurkeztu beharko dira Ebaluazio eta Prospektiba Agentzia Nazionaleko (ANEP) honako arloak aukeratzen dituzten eskaerak:

Materialen Zientzia eta Teknologia (TM)

Konputazio Zientziak eta Informatika Teknologia (INF)

Ingeniaritza Zibila eta Arkitektura (ICI)

Ingeniaritza Elektrikoa, Elektronikoa eta Automatikoa (IEL)

Ingeniaritza Mekanikoa, Ontziginzakoa eta Aeronautikoa (IME)

Matematikak (MTM)

Kimika (QMC)

Teknologia Elektronikoa eta Komunikazio Teknologia (COM)

Teknologia Kimikoa (TQ)

2010eko urtarrilaren 6tik 2010eko otsailaren 3ra. Epe honen barruan aurkeztu beharko dira Ebaluazio eta Prospektiba Agentzia Nazionaleko (ANEP) honako arloak aukeratzen dituzten eskaerak:

Hezkuntza Zientziak (EDU)

Lurraren Zientziak (CT)

Gizarte Zientziak (CS)

Zuzenbidea (DER)

Ekonomia (ECO)

Filologia eta Filosofia (FFI)

Fisika eta Espazioaren Zientzia (FI)

Historia eta Arteak (HA)

Psikologia (PS).

2010eko urtarrilaren 8tik 2010eko otsailaren 5era. Epe honen barruan aurkeztu beharko dira Ebaluazio eta Prospektiba Agentzia Nazionaleko (ANEP) honako arloak aukeratzen dituzten eskaerak:

Nekazaritza (AGR)

Sistemen eta Onarritako Biologia (BFS)

Biologia Molekularra, Zelularra eta Genetika (BMC)

Landareen eta Animalien Biologia eta Ekologia (BVA)

Biomedikuntza (BMED)

Elikagaien Zientzia eta Teknologia (TA)

Abeltzaintza eta Arrantza (GAN)

Medikuntza Klinikoa eta Epidemiologia (MCLI)

Koordinatutako proiektuen kasuan, eskaera bidaltzeko azken eguna koordinatzaileak aukeratutako arloaren arabera izango da.

Epe hauek eskaera formalak (paperezko formatuan eta sinatuta) aurkezteko epeak dira; epe horiek bukatu orduko, ordenagailu bidez egin beharko da aurretiazko eskaera.

Eskaera egiteko prozedura:

Diru-laguntzetarako eskaerak MICINNen web orriko http://web.micinn.es/contenido.asp?menu1=1&menu2=1&menu3=&dir=03_Plan_IDI/00-LIAs/01-ProyectosIDI/00-

[ProyectosInvFund/00@NoOrientada/aa@Con10/03@PresSolic](http://web.micinn.es/contenido.asp?menu1=1&menu2=1&menu3=&dir=03_Plan_IDI/00-LIAs/01-ProyectosIDI/00-) informazio-zerbitzarietan eskuragarri dauden baliabide telematikoak erabiliz beteko dira. Eskatzaileek baliabide telematiko horiek erabiltzearen ondorioz sortutako orriak inprimatu beharko dituzte (behin betikoa sortzeko botoian sakatuz) eta behar bezala sinatuta aurkeztuko dituzte. Originalak baino ez dira aurkeztu behar, ez da beharrezkoa kopiak egitea.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Erregistro Orokorra baliozkoa izango da. Aldi berean, erregutzen da eskariaren oroitidazki teknikoa susi.marcos@ehu.es posta elektronikorako helbidera igor dadila.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eskaria betetzeko erakundeari buruz (UPV/EHU) behar diren datuak honakoak dira:

IFK: Q-48/18001-B

Erakunde-helbidea: Sarriena auzoa z/g

Posta-kodea: 48940

Hiria: Leioa

Lege-ordezkarria: Miguel Angel Gutiérrez Ortiz

Kargua: Ikerketako errektoreordea

Komeni da MICINNen web orrian agertzen den ohiko galderen atala irakurtzea:

http://web.micinn.es/03_Plan_IDI/00-LIAs/01-ProyectosIDI/00-ProyectosInvFund/00@NoOrientada/aa@Con10/03@PresSolic/01-PregFrec/PREGUNTAS.pdf

UPV/EHUko harremanetarako pertsona:

Susi Marcos Muñoz

Tel.: 94 601 20 37

Faxa: 94 601 35 50

E-maila: susi.marcos@ehu.es

MICINNekin harremanetan jartzeko:

Kontsulta orokorrak: Tel.: 902 21 86 00

Telefono bidezko arreta-zerbitzuaren ordutegia: astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 17:30era; larunbatetan, 9:00etatik 14:00etara.

Posta elektronikoko bidezko kontsultak: informa@micinn.es

Kontsulta informatikoak: Tel.: 91 603 82 20

E-maila: cauidi@micinn.es

Ordutegia: astelehenetik ostegunera, 9:00etatik 17:30era; ostiraletan, 9:00etatik 15:00etara.

Posta elektronikoko bidezko kontsultak: informa@micinn.es
